

Hego Afrikako hitzarmenaz «30 urteko tragedia bukatzen da»

DONOSTIA

«Herenegun errefuxiatu eta atzerriratu politiko guztiak Hego Afrikara itzultzeko sinatutako pintzipiozko hitzarmena, hogeitamar urte iraun dituen gizakien tragedia baten amaiera da», adierazi zuen Sadaiko Ogata Errefuxiatuentzako Nazio Batuetako Goi Komisaritzako kideak. 40.000 lagun inguru izan daitezke amnistia hau hartuko dutenak.

Hitzarmena Douglas Stafford aipatu erakundekoak eta A. Leslie Manley, Geneveko Hego Afrikar enbaxadoreek sinatu zuten, ia 500 egunetan zehar elkarriketetan izan ondoren. Pretoriako Gobernuak agertu zuen oztupo nagusia, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) bere barne arazoetan parte hartzea izan zen. Itzulera operazioaren kostua 40 milioi ingurukoa denez, NBE Komisariak mundu guztiko herrialdeei eskatu die laguntza.

Ogataren esanetan hitzarmen hau «hegoafrikar guztiek oinarritzko giza eskubideak izango dituzten gizartea erakitzeke izugarritzko aurrepau-sua da», eta bide batez honek Hego Afrikar NBERen bulegoa irekiko duela azaldu zuen. Hitzarmenak amnistia zabala suposatzen du izaera politikoko delituentzat eta NBEk grazia neurriaz kanpo gelditu direnen alde egin dezake.

Mexico: bozketak ohi bezala promes eta iruzurren artean

Dena den, inkestek PRIri ematen diote garaipena gaurko bozketetan

Mexicon egingo diren gaurko hauteskunde federalak beti bezala kontraesanez beterik egongo dira. Alde batetik, Gobernuak eta Alderdi Iraultzaile Instituzionalak (PRI) hauteskunde garbi eta gardenak izango direla hitzeman du; bestetik, berriz, oposizioak beste iruzur bat prestatzen ari dela kritikatu dio Carlos Salinas de Gortari-**ren Gobernuari. Inkestek, egungo lehendakariari ematen dio garaipena botoen % 61ekin.**

MEXICO

Hauteskunde mexicorarrak behatza joandako nazioarteko begiraleek eta diplomatiko atzerritarrek adierazi dute «zerbait aldatzen ari dela Mexicon» eta aldaketa eta hobekuntza demokratikorako borondatea dagoela, lehenengo faseko aldaketak badira ere.

Iturri hauen arabera, bi dira aldaketa honen zergatiak: mundu osoan ematen ari den prozesu demokratizatzailea eta EEBBekin hasitako harreman berriak, batez ere Washington, Mexico eta Otawa-ren artean eztabaidatzen ari den merkatu libreko tratatu berria.

Begirale hauek baieztatu dute, iruzurrik egon ala ez eta bere dimen-



Carlos Salinas de Gortari 1988ko hauteskunde kanpainan.

tsioa zabala ala murrizta izan, PRIk, 1988ko hauteskundetakoekin konparatuz igoera nabarmena izango duela, Salinasek kanpo eta barne politikar azken aldi honetan izan duen arrakastagatik. Inflazioa geratzea lortu du Gobernu mexicorarrak azken hiru urteotan, enpleguaren berreskuraketa handiagotu da, langileen erosteko ahalmena ere bai, eta Estatu honek nazioarteko foruetan partehartze handiagoa lortu du.

ABSTENTZIOA LEHENEGO LETSAIA

Abstentzioa izango da Mexicoko hauteskunde federaletan parte hartzen dutenen lehen etsaia. Talde politikoek bozeramalek hiritarrak botua ematera bultzatuko duen «eskaintza politiko funtsezkorik» aurkitzen ez duelako gertatzen dela hau agertu dute, demokrazia eta gehiengoak ordezkapen bilatzen duen sistemarentzat kaltegarria dela azpimarratuz.



Armada colombiarreko soldadu bat hildakoen gorpuak zaintzen.

Colombia: hogeitamar hildako bake negoziaketan bezperan

SANTA FE DE BOGOTA

Gutxienez 30 lagun hil ziren herenegun Colombiako iparraldeko Santa Rosa herrian, gerrila colombiarra eta Armadaren arteko borroketan. Colombiako Indar Armatu Iraultzaileak (FARC) taldeak herri hau hartu zuen eta orduan hasi ziren borrokak. Armada eta FARCen arteko enfrentamenduetan hogeitabost gerrilari, hiru polizia eta bi sendagile hil ziren, iturri ofizialen arabera.

Colombiako Indar Armatu Iraultzaileak eta Askatasun Nazionalako Armadak (ELN), Gobernu colombiarrekin joan den ekainetik Venezuelan bake negoziazioak egiten ari den Simon Bolivar Gerrilari Koordinadora (CGSB) osatzen dute.

Datorren abuztuaren 26an hasi behar zuten negoziaketa hauen hirugarren hizketaldiak. Orain aidean geratu da Gobernu eta gerrilariak bilduko diren ala ez egun horretan. Dena den, Cesar Gaviria lehendakari colombiarren eraso hau dela eta, gerrilarien jarrera kritikatu zuen eta CSGBri atentatuekin amaitzeko eskatu zion Caracaseko elkarriketekin jarraitzeko.

Lehendakari colombiarrek gerrilariari gonbidatu zuten «defendatzen omen duten herriak benetan zer nahi duen ondo pentsatzeko eta elkarriketaren bidez adikidetzearen bidea aurkitzeko». Cesar Gaviria gaineratu zuen «bakea ez dela posible, herriak kanpora predikatzen dena herriaren traizionatzen bada».

LABURREAN

CUBA: Europako sozialismoa gaizki garatua

Jorge Gomez Barata Cubako ideologo komunistaren arabera, Europako proiektu sozialistak porrot egin zuen «gaizki asmatua, oker eraikia eta okerrago defendatua izan zelako». Aldizkari batean azaldutako artikuluan, Cubako Alderdi Komunistaren Bideratze Iraultzaileko Departamentuko Komite Zentraleko buruak, Eki Europako prozesua eta ondorioak aztertzen ditu. Cubari buruz aldaketen eta kritika izpirituaren beharra onartu zuen ●

GUATEMALAKO Gobernu-gerrila bilera atzeratu da

Guatemalako Gobernu eta Unidad Revolucionaria Guatemalteca (URNG) gerrilaren arteko Mexikoko bilera, atzeratua izan zen bertako agintariak eskatuta. Julio Mendizabal, Nazioaren Adiskidetzarako Batzordeko idakariak erabaki hau Mexikoko hauteskundearen kausaz izen dela adierazi zuen. Bilera, hilaren 26a eta 30a bitartean zen egitekoa, aurreko kontaktuetan zintzilik gelditu den giza eskubideen arazoa erabat konpontzeko ●

EEBB: Nabigazio militarreko sekretuak bukatuko dira

Estatu batuetako aginte militarrek, Gerra Hotzaren garaitik mantentzen zen politika alde batera utzi du, mundu guztian nabigatzen duten ontzi militarren sekretuen murrizpenak amaitutzat jota. Itsas unitatean, mugimenduak programa sekretuen arabera egiten ziren orain arte. Segurtasun ingurugiroa lasaitu denez Frank Kelso almiranteak unitate guztiei mezu bat bidali zien agindu berriak azalduz. Pertsonal militarren arauak ere malgutuko dira ●

BRASILEKO nekazariek ondasun bateko lurrak hartu

Nekazari familia zenbaitek Brasileko Matto Grosso estatuko etxalde bat hartu zuten han zeuden sei pertsona ere gogoz kontra bertan eutsiz, Lurraren Artzantza Komisioak herenegun adierazi zuenez. Kolonizazio eta Nekazal Erreformatarako Institutu Nazionalak hamarkada batez landu dituzten lurrak eta iaz agindu judizialez utzi behar izan zituzten jabetza eskatzen dute nekazariak 'bahituak' aske jartzeko ●

nazio arazoak / gutxiengoak

Estatu Batuak

Nork nahi du independentzia?

Puerto Rico

Nazio Batuen Erakundeak deskolonizaziorako batzordeak —24 estatutako ordezkari osatutako komitea—, Puerto Ricoren «autodeterminazio eta independentziarako eskubide ukaezina» berretsi du aste honetan, 9 boto alde eta bat aurka izan dituela.

Batzordeak hartutako erabakiak erreferenduma egitea proposatzen du, eta Estatu Batuetako Gobernuari Puerto Ricoko autodeterminazio eskubidea onartzeko eskatzen dio. Hala ere, ez dirudi erabakia aintzat hartuko dutenik ez EEBBtan ez Puerto Ricon. Izan ere, irliko alderdi politiko nagusiek nahiago dute lotuta egon EEBBekin, nahiz eta ez dieten uko egiten beren kultura eta izaera hispanoari.

Puerto Rico ez da inoiz independentea izan. EEBBek 1898an irabazi zioten irla Espainiari. 1956an, Estatu Libre Asoziatua bihurtu zen Puerto Rico, autonomia maila bat irabaziz, baina independente bihurtu gabe. Akordio hori erreferendum batean

baietsi zuten puertoricotarrak gehiengo zabal batekin.

Gaur egun, Puerto Ricoko boterean dagoen alderdiak —Partido Popular Democratico— oraingo estatusarekin segitzea proposatzen du, baina hobekuntzekin. Oposizioan dagoen Partido Nuevo Progresista-k, ordea, Estatu Batuetan erabat integratzea eskatzen du, 51. estatu gisa, horrela Puerto Ricoko garapena bultzatuko litzatekeelako. Independentistak oso gutxi dira, horien aldean, % 3 inguru.

■ **Lurraldea.** 8.897 kilometro karratu ditu Puerto Rico irlak (Nafarroa baino txikiagoa). Antila Nagusien irla multzokoa da.

■ **Biztanlegoa.** 3,3 milioi biztanle ditu irlak. Beste hainbeste puertoricotar bizi da Estatu Batuetako «kontinentean».

■ **Hizkuntza.** Espainola da orain hizkuntza ofizial bakarra, aurtengo apiriletik. 1902. urtetik 1991ra arte, ingelesa eta espainola, biak izan dira hizkuntza ofizialak.

Estatu Batuak